



Eserita edo zutik
**Jakintza
gertutik**

Gurasoen txokoa Ikastolaren Eguna
Zertan gabiltzan Hitzak, hitzak, hitzak...



agenda

APIRILA

HAUR HEZKUNTZA

3 urte: Arramendi baserrira
5 urte: udaletxera, alkatearekin elkarriketa.

LEHEN HEZKUNTZA

LH1: Oiasso museoa (Irun).
LH2: Barandiaran museoa (Ataun).
LH3: Ordizia ezagutuz.
LH6: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa (Donostia).

MAIATZA

HAUR HEZKUNTZA

2 urte: Baliarrainera.
3 urte: Oriora.
4 urte: Txokolatzeko etxera.
4 urte: Aquariumera.
5 urte: Ordiziako maketa erakusketa.
5 urte: Hondarribira.
Azokara, landareak erostera.
'Bremengo musikariak' antzerki emanaldia
Oianguren institutuko eskutik.
Udaberriko jaialdia.

LEHEN HEZKUNTZA

LH1 eta 2: Nestle lantegira.
LH2: San Telmo museora.
LH3: Zarautz-Getaria.
LH4: Zarautzera.
LH5: Gernikara.
LH6: Iztueta baserrira.

DBH

Maila guztiak: giza eskubideak lantzen.

OROKORRA

Hitzak, hitzak, hitzak... ipuina.

EKAINA

LEHEN HEZKUNTZA

LH5: Zuhatza hiru egunetarako.
LH6: Zuhatza hiru egunetarako.

DBH

DBH1: Villañainera hiru egunetarako.
DBH2: Otsagabiara hiru egunetarako.
DBH4: Italiara bost egunetarako.

EKAINA

OROKORRA

Ikastolaren eguna.
Ikastolako Batzarra.

AMAIA AYERRA
Jakintza ikastolako zuzendaria



Jakintza gaur eta bihar

Azken hilabete hauetan gure **Hezkuntza Proiektua** berritzen gabiltza. Duguna aztertu, egiten duguna baloratu eta zer nahi dugun pentsatu, partekatu eta mahai gainean jartzen. Ez da lan erraza ez. Errealitatetik utopiarako bidean non gauden, non egon nahi dugun... eta bakoitzaren bisio pertsonaletik Ikastolako Proiektu partekatu baterako bisio aldaketa ere ez da batere erraza izaten ari.

Hasiera **diagnosi** batean oinarritu dugu. Ikastola osatzen dugun taldeei galdeketa bat proposatu zaie, ahulezia eta indarguneak identifikatzeko. Ondoren, datuen analisia egin eta aurtengo ikasturtea egoeraren argazki batekin amaituko dugu. Segidan, argazkian aterratzen den horrekin erronka berriak non, mantendu beharreko indarguneka nola eta eutsi beharreko gaiei ere nola eta noiz

antolatzeko bideak jorratzen hasi beharko baikara.

Erabat aberasgarria suertatzen ari da prozesua. Beti presaka gabiltzan gizarte honetan horrelako geldidunak behar dira eta eskertzen dira. Hausnarketarako bideak ireki, inguruko irakasle, guraso eta ikasleen era guztietako iritziak entzun, zalantzak plazaratu eta Ikastolaren bisiotik hobekuntzarako proposamenak bideratzeak proiektua bera asko aberasten du.

Teorietatik abiatuta bada ere, txikien eredu garena jakinda, lortu nahi ditugun eta mantendu nahi ditugun balioak praktikatzeko ariketa polita suertatzen ari da. **Elkarlana, komunikazioa, ekintzailtza eta partaidetza** balio ditugun honetan, duela ia 48 urte sortutako Jakintza Ikastolaren bidea elkarrekin egiten jarraitzen dugu eta jarraitu nahi dugu.

Irailean noiz?

Aurtengoa amaitu ezinik gauden honetan, 2016-2017 ikasturtearen hasiera datak lotuta dauzkagu. Irailean berri ere argitaratuko ditugu:

ETAPA	DATAK	ORDUTEGIA
Haur Hezkuntza	Irailaren 12tik 23ra Irailaren 26tik aurrera	09:00etatik 12:30era Goiz eta arratsalde
Lehen hezkuntza	Irailaren 12tik 23ra Irailaren 26tik aurrera	09:00etatik 12:30era Goiz eta arratsalde
DBH	Irailaren 8an Irailaren 12tik 23ra Irailaren 26tik aurrera	Aurkezpena 11:00etan 08:30etatik 14:30era Goiz eta arratsalde
DBHO	Irailaren 8an Irailaren 12tik aurrera	Aurkezpena 11:00etan Ordutegi arrunta

Presente y futuro de Jakintza. Llevamos varios meses trabajando en la renovación del Proyecto Educativo. No es una tarea fácil, porque tenemos que analizar lo que tenemos, valorar lo que hacemos y pensar y compartir lo que queremos. Hemos empezado con un diagnóstico en el que han participado los diferentes grupos que forman parte de la ikastola. Con ello obtendremos el retrato de la situación actual de la ikastola y a partir de ahí podremos, entre otros, fijar nuevos retos y decidir cuáles son nuestros puntos fuertes. El proceso está resultando muy enriquecedor y la participación de los distintos agentes nos permite seguir caminando juntos por el camino iniciado hace 48 años por la ikastola Jakintza. **Calendario de septiembre.** Ya hemos concretado las fechas de inicio del próximo curso.

HIRI HEZITZAILEA

Hiri hezitzaile proiektuaren barruan maitatzaren 4an Ordiziako lau elkarte desberdinetako bisita jaso zuten DBH4A ko ikasleek. Duela bi urte hasi ginen haritik giza eskubideen lanketarekin aritu gara. Aurrekoan gaia intimitate eskubidea izan zen. Aurtengoan gaia sakondu egin nahi izan dugu eta deialdia zabalagoa izan da.

Solasaldian parte hartu zuten elkarteak Garagune, Ordizia Kolore, Zuhaitzi

elkartea eta Dar-dar antzerki taldea izan ziren. Denon artean Hezkuntza jasotzearen eskubideaz aritu ginen. Gure ikasleentzat betebeharraren hori beste batzuentzat ezinezkoa izan dela ikusi genuen.

Oso positibotzat jo genuen esperientzia. Ikasleek hunkituta bukatu zuten eta horri jarraipen bat ematea egokitzat jo dugu denok. Datorren ikasturterako proposamen berriak aztertuko ditugu.

Elkar ezagutu dezagun, elkar ulertu eta maitatzeko.



IKASTOLAREN EGUNA

Ekainak beti izan ohi du egun berezi bat. Aurtengoa 11. izan da eta larunbatarekin etorri da. Zergatik berezia? Ba, egun horretan JAKINTZA sendia elkartu zelako/ginelako jai handi bat ospatzeko.

Familia handi, zabal eta anitza da gurea. Guztiok norabide berean ari gara arraunean, bagoaz aurrera itsaso zabalean. Batzuetan olatu handiak topatu ohi ditugu, besteetan, itsasoa bare-bare egon ohi da, eta gu beti aurrera.

Ekainaren 11an, ordea, dena utzi, eta elkarrekin egoteko hartu genuen. Ez zen ezer falta izan. Denetik izan genuen.

Bukaeran konplizitate handiko irriño bat bota genion elkarri, «ederki gozatu dugu» eta prest geunden arraunei berriro heltzeko.




La ciudad educadora. L@s alumn@s de 4º de ESO han recibido la visita de representantes de las asociaciones Garagune, Ordizia Kolore y Zuhaitzi y el grupo de teatro Dar-Dar, dentro de las actividades enmarcadas en el proyecto La ciudad educadora en el que están participando. Este curso están tratando el tema de los derechos humanos y en el encuentro con las asociaciones ordizarras entre todos los participantes hablaron sobre el derecho a la educación.

11 de Junio, día de la Ikastola. Junio siempre es un mes muy especial en Jakintza, porque se celebra el Día de la Ikastola. Este año la fiesta se ha celebrado el día 11, sábado, y como todos los años ha servido para congregarse a la gran familia que forma Jakintza. En la fiesta no faltó de nada y sirvió para constatar que seguimos remando todos juntos en la misma dirección.

HAMALAU ORDUKO IRAKURRIALDIA

Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan, Jakintza Ikastolak I. Irakurketa Martxa egin zuen apirilaren 18an. Ikasle, irakasle, langile, irakasle ohi, ikasle ohi, guraso eta herriko hainbat eragile hamalau orduz aritu ziren Bernardo Atxagaren 'Obabakoak' liburua irakurtzen txandaka-txandaka, guztira 350 lagun inguru. Hezkuntza komunitate guztia gogobete zuen ekimenak.



Ilusioa, emozioa, poza, polita, aberasgarria. Hitz horiekin deskriba daiteke joan den apirilaren 18an Jakintzan egin zen I. Irakurketa Martxak parte hartu zutenengan utzi zuen arrastoa. Ez zen erronka makala izan. Batetik, irakurri beharreko liburua euskal literaturaren ikurretako bat zelako, Bernardo Atxagaren *Obabakoak*; eta bestetik, jende askoren parte-hartzea eskatzen zuelako. Baina erronka bete zen, nola gainera!

Elena Riaño gaztelera irakaslea eta Ainhoa Mujika euskara irakaslea izan dira ekimenaren sustatzaileak. Biek ala

biek nabarmendu dute Irakurketa Martxaren helburu nagusia ez zela berez irakurzaletasuna sustatzea, baizik eta ikastolaren ateak hezkuntza komunitate osoari eta herriko eragileei zabaltzea, eta era berean, horien guztien parte-hartzea lortzea. «Orain arte egin ditugun irakurketa saioak gela barruan egin ditugu eta gela barruan gozatu ditugu, baina aurtan herrira zabaldu nahi izan dugu», azaldu du Elenak.

Ainhoa gogoratu du ideia «ilusiotik» sortu zela, «fede handirik gabe», baina pixkanaka-pixkanaka «forma hartzen» joan zela. «Gero ideia berriak sortzen

joan ziren, eta azkenean lortu dugu egitea. Horrek satisfakzio handia ematen du». Elenak ideia bera nabarmendu du: «Ilusioz betetako ekintza bat izan zen. Guk behintzat ilusioa jarri genuen, eta uste dut hori nabaritu zela eta harrera ezinhobea izan zuela. Esaten ziguten ur handitan ez ote ginen sartzen ari, baina ilusio bat daukazunean partekatu egin nahi duzu».

Hasiera, Bernardo Atxagak

Behin ideia buruan, zer liburu aukeratu pentsatzen jarri ziren bi irakasleak, eta Bernardo Atxagaren *Obabakoak*

liburuaren alde egitea erabaki zuten, euskal literaturaren erreferente bat delako eta balio sinboliko handia duelako. «Hego Ameriketara Garcia Marquez den bezala, edo Espainian Cervantesen *El Quijote*, guk Atxaga aukeratu genuen. Irakurzaletasuna sustatzeko beharbada ez, baina sinbolikoki indar handia du», adierazi du Elenak.

Liburua aukeratuta, kudeaketa lanari heldu zioten buru-belarri: hezkuntza komunitateari asmoa azaldu, parte-hartzera animatu, herriko eragileei deitu... Eta kalkuluak ere atera behar izan zituzten. «Gu ez gaude horrelakoetara trebatuta, eta orduro zenbatek irakurri behar zuten kalkulatzeko ba... Probak egin genituen, eta ikasleen mailaren arabera motelago edo bizkorrago joan zitekeela bagenekien».

Gutxi gorabeherako kalkulua hauxe izan zen: orrialde bakoitzeko bi minutu pasa behar zirela. «Hamalau orduko mendi martxak bezala, hau hamalau orduko irakurketa saio bat izan da», nabarmendu

du Ainhoak. Eskolako ohiko ordutegian, 08:30ean, hasi zen irakurraldia, eta 22:30ak aldera bukatu. Hasiera berezia izan zen, Bernardo Atxagak berak irakurri baitzuen lehen orrialdea, bideo baten bidez. «Ez genuen espero», esan du Elenak. «Ez da erraza, zeharka lortu genuen Atxagarengana iristea», gehitu du Ainhoak.

Eta ondoren etorri zen segida guztia: zuzendaria, idazkaritzako langileak, ikasleak taldeka, ikasle ohiak, irakasle ohiak, gurasoak,

herriko eragileak (Amets Bide dantza taldea, Emanurre, Goierriko Bertso Eskola, Ordizia Kirol

Elkartea, Ordizia Rugby Elkartea, Kimetz emakumeen elkartea, Ordiziako Udala...). «Denak nahasian, oso polita izan zen», gogoratu du Ainhoak. Parte-hartzaile guztiek irakurri zuten orrialdea sinatu zuten, eta ondoan zuten beste liburu batean sentitu zutena idazteko aukera izan zuten. Oroigarri modura, teknologiako 3D makinan egindako sugandila bat –*Obabakoak* liburuaren ikurra– eman zieten denei opari, eta Atxagari berari ere helarazi zioten bat.

Ikasleak ere, oso gustura

Pozik dago Elena ekimenak izan duen harrerarekin: «Jendeak oso gauza politak idatzi zituen. Oso ekimen polita izan zela, originala, aberasgarria... Kritika onak jaso ditugu, eta jendeak oso gustura gelditu zela esan digu. Harrera ezinhobeia izan da». Ainhoak beste alderdi bati ere erreparatu dio: «Ni ikasle ohiekin ibili nintzen batik bat. Harritu ninduena izan zen den-denek baiezkoa esan zutela. Horrek asko adierazten du, ikusten da oraindik badutela ikastolarekiko atxikimendua». Lerro hauen bidez, bi irakasleek eskerrak eman nahi



JOSU LEKUONA

«Ideia oso originala iruditu zitzaidan. Bukaera ere ikusi genuen, eta gustura joan ginen etxera»



MAIZPEA OIARBIDE

«Ekintza hasieratik nola garatu zen ikustea polita izan zen, eta herriko jendearen portaera ere bai»



MIREIA ALDASORO

«Irakurtzea asko gustatzen zait, eta orduan, horrelako ekintzak asko gustatzen zaizkit»



Bukaera jendetsu eta hunkigarria

Bernardo Atxagaren hasierako hitzak hunkigarriak izan baziren, are hunkigarriagoa izan zen bukaera. Liburutegiko txokoa jendez gainezka zegoela irakurri zituzten liburuaren azken orrialdeak, eta urte hasieran hil zen ikasle ohi baten familiari eskaini zioten liburua. «Edizio berezi bat zen, eta irakurle guztiek sinatuta zegoen. Familiari bukaeran etortzeko eskatu genion, eta liburua ez ezik, larrosa bat ere eskaini genien, sinbolismo horrekin jarraituz. Oso hunkigarria izan zen. Nahiko berria zen gertakizuna, eta uste dut oso gustura geratu zirela», adierazi du Elena Riañok.



dizkiete parte hartu zuten guztiei.

Irakasleak gustura bai, baina ikasleek zer iritzi daukate I. Irakurketa Martxari buruz? Irakasleek DBH3 eta 4ko, eta Batxilergoko ikasleak inguratu dituzte tertuliara, haien iritzia entzun asmoz. Sei izan dira guztira: Mireia Aldasoro (DBH3), Ander Soto eta Josu Lekuona (DBH4), eta Aizpea Oiarbide, Xabier Muriel eta Maria Saldaña (Batxilergoa).

Denetan gazteenak, Mireia Aldasorok, martxaren bukaera aldera irakurri zuen orrialde bat. Hauxe haren iritzia: «Niri irakurtzea asko gustatzen zait, eta orduan, horrelako ekintzak asko gustatzen zaizkit». Ander Sotok, aldiz, hasieran parte hartu zuen, eta bere lagunek beste ordu baten txanda hartua zuten, atzera itzuli egin zen. «Nik uste baino jende gehiagok eman zuen izena, eta dena oso ondo ateratu zen. Bukaera ere oso polita izan zen».

Josu Lekuonari «oso originala» iruditu zitzaion ekintza. «Asko gustatu zitzaidan. Anderrek eta biok komentatu genuen bukaera ikustera ere etorri behar genuela, eta oso gustura joan ginen etxera». Aizpea Oiarbidek ere orrialde bat

irakurri zuen, eta ekimenaren beraren garapenari erreparatu dio: «Ekintza hasieratik nola garatu zen ikustea pozgarria izan zen, eta herriko jendearen portaera ere bai».

«Irakasleek ideia proposatu zigutenenean ez nuen pentsatu ere egiten nolakoa izango zen, inoiz antzekorik egin gabe geundelako». Xabier

Murielek ere parte hartu zuen irakurrialdian, eta espero baino handiagoa izan zela dio. «Horrenbeste jendearen aurrean irakurtzean urduri jartzen zara, baina oso polita izan zen». Maria Saldañak urduritasuna ere aipatu du, baina hasieratik ideiak «inpresio

ona» sorrarazi ziola eta «oso gustura irakurri» zuela dio. «Hasieran uste nuen irakasle eta ikasleen arteko zerbait izango zela, baina azkenean ikusi zen emaitza: herriko jendea etorri zen, gurasoak-eta oso gustura gelditu ziren... Niri asko gustatu zitzaidan».

Gurasoei aipamena eginda, Arrate Leundak nabarmendu du haren alabak eta semeak «ilusioz» aipatu zutela etxean ekintza hau egitekoa zela. «Parte hartzera joan nintzenean, ikusi nuen mimo handiz prestatuta zegoela: irakurketarako txoko goxo bat, parte-hartzaileentzat oparixko bana, mokadu bat hartzeko aukera, ikasle, irakasle, guraso eta herritarren joan-etorriak... Jakintza bizirik dagoen seinale da».



ANDER SOTO

«Nik uste baino jende gehiagok eman zuen izena, eta dena oso ondo ateratu zen. Bukaera oso polita izan zen»



XABIER MURIEL

«Horrenbeste jenderen aurrean irakurtzean urduri jartzen zara, baina bestela oso polita izan zen»



MARIA SALDAÑA

«Asko gustatu zitzaidan ekintza, eta gurasoak-eta oso gustura gelditu ziren. Bukaera hunkigarria izan zen»

Datorren urtean laburragoa

Eta lehen aldi batek bigarrenari bide egiten dioenez, Elenak eta Ainhoak argi dute datorren urtean ekintza hau berriz antolatuko dutela. «Liburu finagoa izango da, motzagoa», aurreratu du Mujikak. Eta Riañok ondotik, irribarre txikiarekin: «Zazpi orduko kirol probak ere badaude ezta?».



Maratón de lectura

La ikastola Jakintza celebró el Día Internacional del Libro con el I. Maratón de Lectura que tuvo lugar el pasado 18 de abril en la biblioteca del centro con la participación de alumn@s, ex-alumn@s, profesores, trabajadores, padres, madres y numerosos agentes sociales de Ordizia. El libro elegido fue 'Obabakoak', de Bernardo Atxaga, todo un símbolo de la literatura vasca.

Fue el mismo Atxaga el que inició el maratón con la lectura por video de la primera página de su obra. Le sucedieron unos 350 lectores más, que leyeron el resto del libro página a página y que tuvieron ocasión de firmar la parte que leyeron y de dejar sus impresiones en otro libro. A cada uno de ellos se les entregó un pequeño obsequio, una lagartija, el símbolo de 'Obabakoak', impresa con tecnología 3D. Atxaga también recibió la suya.

En total fueron 14 horas de lectura, desde las 08:30 hasta las 22:30 y su organización supuso un gran reto para las dos promotoras de la iniciativa: la profesora de Lengua Castellana Elena Riaño y la profesora de Euskara Ainhoa Mujika. No era la primera vez que organizaban este tipo de lectura colectiva, actividad que ya habían realizado con anterioridad dentro de las aulas, pero en esta ocasión querían hacer partícipe también al resto del pueblo. La elección del libro fue lo más sencillo y no hubo dudas para inclinarse por la obra maestra de la literatura vasca, *Obabakoak*. El reto llegó con el cálculo del número de lectores y la coordinación de tod@s ell@s. Tras realizar varias pruebas, fijaron en dos minutos el tiempo necesario para leer cada página y con ello calcularon cuántos lectores se necesitaban. Luego llegaron las llamadas y se fueron estableciendo los turnos. Además de la comunidad educativa de Jakintza, que acogió con agrado la iniciativa, también se invitó a diferentes agentes sociales de Ordizia, como el grupo de baile Amets Bide, Emaneurre, Goierriko Bertso Eskola, Ordizia Klrol Elkartea, Ordizia Rugby Elkartea, la asociación de mujeres Kimetz, el ayuntamiento... También lograron implicar al mismo Bernardo Atxaga.

Tanto Elena como Ainhoa están muy contentas con la acogida que tuvo el maratón de lectura y con el desarrollo del mismo. Han recibido críticas positivas y los comentarios que dejaron los participantes en el libro muestran que les gustó la actividad y que disfrutaron mucho leyendo a Atxaga. Las dos profesoras quieren aprovechar esta ocasión para dar las gracias a tod@s l@s que participaron en esta actividad.

A l@s alumn@s de Jakintza también les gustó el maratón de lectura. Seis de los participantes nos han contado sus impresiones. Son alumnos de 3º y 4º de ESO y de Bachiller. Aizpea Oiarbide ha destacado la participación de la gente del pueblo, mientras que Ander Soto ha comentado que le sorprendió la cantidad de lectores que se animaron a participar y que le gustó mucho el final (se le hizo entrega del libro de comentarios a la familia de un ex-alumno fallecido a principios de año), al igual que a María Saldaña. Josu Lekuona ha señalado que le pareció una idea original y que no quiso perderse el final y Mireia Aldasoro, por su parte, ha dicho que le gusta mucho leer y que participara ha sido para ella un honor. Xabier Muriel, por último, ha reconocido que se puso nervioso al leer delante del público pero también ha dicho que la actividad le gustó mucho.

Esta ha sido la primera y exitosa edición del Maratón de Lectura de Jakintza, y Elena y Ainhoa anuncian ya la segunda para el año que viene, aunque adelantan que elegirán un libro «no tan extenso».



ATAUNERA TXANGOA

Argazkian ikusten dituzun neska-mutiko horiek 2. mailakoak dira. Arto-irinarekin taloak egiten ari dira. Arto-irina? Jentilek ereindakoa ote? Errota zaharrean ehotutakoa al da? Bai, gaurkoan Ataunera joan dira. Pozik gainera!

Hasteko, Jentilen inguruko kondairak, istorioak... arretaz entzun dituzte. «*Jentilak, gizon handi eta patxadakoak omen ziren. Lurrari erabat lotuak, naturarekin bat eginda bizi zirenak*».

Ondoren, Joxemiel Barandiaranen museoa bisitatu dute. Gure arbasoen bizimodua aztertu zuen Joxemielek eta ohartu dira zeinen gizon langile eta jakintsua zen gure Joxemiel Barandiaran. Berak zioenez, etxekoei Jentilen istorioak entzutean, sortu omen zitzaion gure aurrekoen bizimodua ikertzeko *harra*. Inguruan dagoen errota, ere, ikusi dute. «*Errota zahar maitea, uraren ertzean, negarrez alea xehetzean*». Handik arto-irina hartu eta taloak egin dituzte.

Ederrak egingo zituzten, bat bera ere ez da sobratu eta! Airoso itzuli dira, gustura, iturri zaharretik edan baitute, iturri zaharretik ur berria.



BERDINTASUNERANTZ

DBH3ko ikasleek emakumeenganako indarkeria salatzen hasi zuten ikasturtea. Horretarako, hainbat bideo egiteaz gain, mezuz jantzitako adreiluekin koadro eder bat osatu zuten. Azken boladan gizartearen kezka bihurtu zaigun gai sakon hau borobiltzeko genero berdintasunaren eta estereotipoen inguruko sentsibilizazio saio anitzak jaso dituzte azken hiruhilekoan. Jolas eta Ekin erakundearen laguntzaz estereotipoei buruzko tailerrak egin zituzten lau astez. Horrez gain, hainbat hitzaldi jaso dituzte. Batetik, homosexualitatearen berri eman zieten Goierriko Zubia eratu duten Gemma Urteagak eta Ander Matxainek; bestetik, Iraitz (ikasle ohia), Klara eta Izar feminista ekintzaileak izan ziren feminismoaren inguruko terminologia lantzen; eta amaitzeko Garaitza elkarteak Carmen Escudero etorri zitzaigun abusu sexualen errealitatea erakustera; izan ere, gai hori bera eta gai horren bueltako matxismoa, tratu txarrak... jorratzen dituen *Palabras envenenadas* eleberriaren lanketa dialogikoa egin dute Gaztelerako ikasgaietan. Eta hori gutxi balitz, Zuhaitzi eta Kimetzeko irakurle taldeko partaideekin, Miriam Herbón gidari zutela, belaunaldien arteko solasaldiarekin amaitu dute liburuaren partekatzea.



HITZAK, HITZAK, HITZAK...

Urrutiko herrialde bateko biztanleek, ipuinak dioen arabera, hitzak erosi egiten dituzte. Erosteaz gain, irentsi behar izaten dituzte gero hitz egin ahal izateko. Aberatsek eta boteretsuek nahi adina hitz eros ditzakete. Jende xumea, aldiz, zabortegetan ibiltzen da bila, eta noizean behin, aurreztutako diruarekin balio gutxiko hitzen bat erosteko aukera izaten du. Bai, han hitzak oso baliotsuak dira, gurean bezalaxe. Hala ere, gurean zeharo desberdina da. Guk ikasi egiten ditugu eta gure ahora etortzen dira ia ohartu gabe. Hitz batzuk zirrara berezia sorrarazten digute (ama, aita, anaia, laguna, maitasuna...), beste batzuk arruntak izan ohi dira (tomatea, kamioia, txoria...) eta azkenik zorrotzak direnak, min handia egin dezaketenak (gorrotoa, tontoa, ez zara nire laguna...).

Egun batean Dar-Darrekoek etorri ziren ikastolara, eta hau gutzia kontatu ziguten eta esan ziguten azken hitz horiek, zorrotz horiek, oso gutxitan erabiltzeko eta gure ahotik

mintzeko soilik ateratzen saiatzen badira, preso uzteko eta berriz irensteko.



Ataun. Los alum@s de 2º fueron de excursión a Ataun, donde aprendieron muchas cosas sobre los jentiles y visitaron el museo de Joxemiel Barandiaran. Luego fueron al molino y allí aprendieron a hacer talos con harina de maíz. **Hacia la igualdad.** L@s alumnos de 3º de ESO iniciaron el curso con un acto simbólico para denunciar la violencia contra las mujeres y en el último trimestre han participado en varias actividades de sensibilización como talleres sobre los estereotipos, conferencias sobre la homosexualidad y el feminismo. **Palabras.** En algunos lugares las palabras son muy valiosas, pero aquí las aprendemos y las decimos sin darnos cuenta. Hay palabras emotivas, como aita o ama, normales, como tomate o camión, o afiladas, como odio o tonto. Dar Dar nos ha enseñado a utilizar con cuidado estas últimas.

GERNIKA MEMORIAN

Duela ez asko, 5. mailako ikasle eta irakasleak Gernika bisitatu zuten. Han entzun, ikusi eta ikasi zutenaren ondorio dira, beraiek idatzitako bi poema hauek

Bonbak erori ziren.

Jendea korrika babes bila eta laguntza eske.
Zoritxarra, suntsipena eta heriotza;
odola kaleetan, tristura, biztanleen sufrimendua.
Hildakoak lurrean. Abereak korrika.
Etxeak sutan eta Arbola han, bizirik.
Une beldurgarrien ondorio.
Umeak eta gurasoak bananduta.
Haur askok ez zituzten gurasoak berriro ikusiko.
Familia gabe geratu ziren gehienak.

GERNIKA'37

Eguzkia zeruan, goxo.
Ama sukaldean, ni hari begira, jolasti.
Kanpai hotsak
txorien udaberriko kantak estaltzen ditu.
Urduritasuna, kezka, beldurra.
Eskaileretan behera, saltoka;
kalean korrika, amaren besoetan,
babes eman nahian,
babes bila.
Itzal mortuak airean.
Soilik bonben txistuek
estaltzen dute motor hotsa.
Eztanda gor bat eta
hautsak dena estaltzen du.
Lurrean erorita, kolpatuta.
Oihuak, negarrak, ikara aurpegiak, begi itxiak.
Ama!

Ama...



HISTORIA PIXKA BAT

Eta erromatarrek gure lurralderaino ere iritsi ziren, gure aintzinako Euskal Herrira, baskoien lurralde zabalera eta abegikorrera, aukerez beteriko eremu honetara. Gure ondareek gutizia piztuarazi zieten eta merkataritzako leku estrategiko bilakatu zuten. Bi kulturak zeharo desberdinak izan arren, bakean eta elkarlanean bizi izan ziren, etengabeko hartu-emanen, elkar aberastuz, elkar errespetatuz eta maitatuz. Gertu agertzen zaigun elkartasun horren lekuko garai hartan Oiasso deiturikoa, gaur egun, Irun.

Eta hara abiatu ginen lehenengo mailako ikasleak beraiei buruz gehiago ezagutzera. Oiasson bertan zeuden meategietatik zilarra atera genuen eta eraman genuen erromatarren itsasontzietan itsaotan barrena nabigatuz, beraien urrutiko herrialderantz. Kaltzadak egin eta keramika-teknikak landu genituen. Ura garraiatzeko eta eraikitzeko sistema aurreratuak erabili genituen. Ave Cesar! Gora Baskoia!

IZTUETA BASERRIRA BISITA



6. mailako ikasleak gara eta maiatzeko ostiral batean Iztueta baserrira egindako irteera oso interesgarria iruditu zitzaigun.

Baserrira iritsi bezain laster, Ainhitze izeneko emakume jator batek egin zigun ongi etorria. Baserriaren historia eta funtzionamenduari buruzko bideo bat ikusi ondoren, bertako animaliak, ukulua, zelaiak, esnetegia eta orokorrean baserrira ezagutzeko aukera izan genuen. Baserriko bizimoduan erabiltzen diren hitz berri asko ikasteaz gain, bertako esnea dastatu eta bide batez Lazkaomendiko ingurune paregabeaz gozatzeko beta izan genuen.

Oso gustura ibili ginen eta adin guztietako pertsonei bertara bisita egitea gomendatzen diegu.

El bombardeo de Gernika. L@s alumn@s de 5º curso han estado en Gernika y han escrito dos poemas sobre lo que vieron, escucharon y aprendieron allí en torno al bombardeo. **Un poco de historia en Oiasso.** Los romanos también llegaron a Euskal Herria, donde convivieron con los vascos en paz y armonía. La antigua Oiasso (Irun) fue testigo de esa convivencia. L@s alumn@s de Primero hemos tenido ocasión de acercarnos allí y aprender algo más de ellos: hemos extraído plata de las mimas, hemos navegado en sus barcos, hemos construido calzadas... ¡Ave Cesar y vivan los vascones! **El caserío Iztueta.** Ainhitze fue nuestra guía en la interesante y recomendable visita que hicimos l@s alumn@s de sexto al caserío Iztueta de Lazkaomendi. Primero vimos un video sobre la historia y el funcionamiento del caserío y luego nos enseñó la cuadra, la lechería y los prados. Además, tuvimos ocasión de probar la leche que producen allí.

UDABERRIA HHn

Iritsi da udaberria HHra eta urtaro honetan gure zelaietan loreak ugaritzen diren bezalaxe, ugaritu dira ekintzak Villa Eugenioan. Proiektu interesgarriak burutu dituzte gure ikasleek eta, besteak beste, gozogile edo arkitektuen zereginetan murgildu dira talde giro ederrean. Irteeretan eta udaberriko jaialdian, berriz, zenbat gozatu duten! Azken batean, gure txikitxoek beraien jolasekin, irriekin, abestiekin eta dantzekin kolore eta dirdira berezia erantsi diote udaberriari. Argazkia ikusi besterik ez dago!



SARIA URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETAN

Ipuin lehiaketa batean irabazten dudan lehen saria da eta ikaragarri poztu nintzen saria lortu nuela jakitean. Lehenago ere idatzi izan dut, baina batez ere bertsoak. Izan ere, bertso eskolan nabil 13 urte nituenetik eta oso gustuko dut.

Bertsoen inguruan ideia handirik izan gabe hasi nintzen bertso eskolan lagun batek bultzatuta eta geroztik hainbat esperientzia bizi izan ditut, horietako bat udalekuak izan dira. Abenduan Sormen udalekuetan izan nintzen, bertan antzerkian, musikan, literaturan eta bertsoan ibiltzen garen gazteak elkartu ginen eta ipuina idazteko gogoia bertan piztu zitzaidala esango nuke.

Saria lortzeak ikaragarri poztu nau, baina horrez gain idazten jarraitzeko bultzada ere eman dit.

Irati Jauregi



UDALEKUTAKO BEGIRALE



Ikasturtean zehar hainbat proiektu landu dira gure ikastolan. Horietako bat dugu DBH 1eko ikasleak udalekuak antolatzen igaro dutena azken hiru hilabeteetan. Lanketa luzea izan da eta hainbat informazio bilatu eta prozesatu ondoren, beren gustuko udalekua hautatu eta zergatiak argudiatu behar izan dituzte. Ondoren aurrekontua ere egin dute, eta batez ere udalekuak planifikatzen eta antolatzen jardun dira beste ikasleentzat. Maiatzaren 25ean Aramara joan ginen Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleekin batera. Eguraldi ederra tarteko, arratsalde ederra igaro genuen eta gogotsu jardun ziren gure ikasleak, batzuk begirale lanetan, eta besteak berriz prestatutako jolas eta jokuetan parte hartuz.

La primavera en Educación Infantil. Ya ha llegado la primavera a Villa Eugenia donde I@s más pequeñ@s han disfrutado de numerosas actividades como los talleres de construcción y repostería, las excursiones o el festival de primavera. **Irati Jauregi premiada en el concurso de literatura Urruzuno.** «Es la primera vez que gano un concurso de cuentos y estoy muy contenta porque lo que más he escrito hasta ahora han sido bertsos. El premio me ha animado a seguir escribiendo». **Monitores de colonias de verano.** En el último trimestre, en 1º de ESO han trabajado en un proyecto que consiste en la organización de unas colonias de verano. El trabajo ha sido muy completo: temática, presupuesto, planificación... Para terminar, I@s alumn@s llevaron a la práctica su proyecto y ejercieron de monitores con I@s de 6º de Primaria en la excursión que hicieron a Arama.

AGURRA

Ez du ematen jada 16 urte igaro direnik. Bizitza osoa eman dugu hemen ia; hemen hazi eta hezi gara, hemen egin ditugu bizitza osorako alboan izango ditugun lagunak, ikaskideak. Gure irakasleak izan direnak ere gogoan ditugu: 2-3 urteko gelatik hasi eta 2. Batxilergora arte izan ditugun guzti-guztiak.

Faltan emango ditugu ikastolako gauza asko, orain goazen lekuan ez baikaituzte hemen bezain ondo tratatuko. Une txar asko igaro ditugun arren, merezi izan du. Beti eramango ditugu gurekin ikastolan bizitako oroitzapenak.

Etorri eta berriz ere joandako ikasleak ere izan ditugu. Oso gutxi izan ginen batxilergoa Jakintzan egitea erabaki genuenak, 19



hain zuzen ere, eta egia esan, oso harro gaude gure erabakiaz, unibertsitatea baino lehenagoko ikasketak Jakintzan amaitu izanaz.

Azken bi urteotan, gainera, ikaskideen arteko harremana asko sendotu da, gelako giroa paregabea izan da eta DBHn oraindik ondo ezagutzen ez genituen gelakideak hobeto ezagutzeko aukera izan dugu. Ziur gaude urte hauetan sortutako harremana mantendu egingo dela urteak pasa ahala. Horrexegatik, ez genukeen gure erabaki hura ez gure ikastola ezerrerregatik aldatuko.

Hau guztia esanda, eskerrak ematea beste ezer ez zaigu gelditzen, hain ondo prestatu eta

horren zintzo portatzeagatik, laguntzeko prest egoteagatik, eta baita egindako errieta eta sermoi guztiengatik ere. Modu batera edo bestera, honek guztiak gugan eragina izan du, gure izaera eta portaera garatzen eta hobetzen lagundu digu, etxeke heziketa eta giroarekin batera. Esan genezake, beraz, gaur egun garena, zati handi batean, ikastolari zor diogula.

Hortaz, besterik gabe, mila esker ibilbide honetan parte hartu duzuen guztioi, bai irakasle, guraso eta ikaskideei. Orain, etapa berri bati hasiera emateko garaia heldu da, baina argi gera dadila: hemen bizi izandakoa ez da atzean geratuko!

Batxi 2ko ikasleak.

EUSKARA TALDEA

Jakintza ikastolan ikasleen euskara taldea jarri dugu martxan berriz ere. DBHko hainbat ikasle euskara sustatzeko helburuarekin biltzen hasi dira. Hamabostean behin astearteetan izaten dute zita, 13:00-14:30 bitartean. Bilera horietako lehen erronka *Euskaraz Bizi* egunaren egitaraua berritzea izango dute, eta buru-belarri dabilta zeregin horretan. Dagoeneko taldea martxan bada ere, ateak zabalik izango dira gure hizkuntza bultzatzeko gogoia duen DBHko edonorentzat. Atera txinpartak euskarari!



Despedida. Parece mentira, pero ya han pasado 16 años. Empezamos con 2 años y hemos terminado 2º de Bachi. Aquí hemos crecido y nos hemos criado, junto a nuestros profesores. Fuimos solo 19 los que decidimos cursar el bachillerato en Jakintza y estamos muy orgullosos de ello. Nunca nos arrepentiremos de aquella decisión. Han sido dos años en los que el ambiente de clase ha sido muy bueno y se han reforzado la relación entre nosotr@s. Ahora solo nos queda dar las gracias a los profesores, padres y madres y compañer@s. Somos lo que somos gracias a la ikastola. Vamos a iniciar una nueva etapa, pero nunca olvidaremos lo que hemos vivido aquí, en Jakintza. **El grupo de euskara.** En la ikastola Jakintza se ha puesto en marcha den nuevo el grupo de euskera compuesto por estudiantes. Vari@s alumn@s de ESO han comenzado a reunirse para dar un impulso al euskara y uno de sus primeros cometidos es renovar el programa del día *Euskaraz Bizi*. El grupo ya está en marcha, pero tiene abiertas las puertas a tod@s los que quieran ayudar. ¡Sácale chispas al euskara!



Zutik, ezkerretik eskuinera: Iker Zudaire, Uxue Sukia, Itsaso Urretagoiena, Ixiar andereñoa, Iñaki Otegi, Eneko Caballero, Izaro Ormaetxea, Urko Ruiz de Apodaka, Aiora Gorostizu, Ekain Lorenzo eta Ugaitz Garmendia.

Belauniko, ezkerretik eskubira: Haizea Alberdi, Naiara Perez, Joseba de Arriba, Arkaitz Iztueta eta Aitziber Aizpurua.

Eserita, ezkerretik hasita: Arkaitz Mariezkurrena, Xemein Oizartabal, Jokin Muñoz, Nekane Kerejeta, Araitz Goikoetxea, Lierni Garmendia, Miren Hernandez, Lander Lasa, Iker Iztueta, Idoia Odriozola.

OROITZAPENAK

Ikasle garaiko argazki batzuk whatsapppean jarri eta oroitzapenez betetzen hasi dira mezuak. Hainbeste urtetan gure etxea izan denaz oroitzapen pila etorri dira burura. HHTik hasi eta LHan zehar izan ditugun irakasle, irteera, haserraldi eta pozen ingurukoak.

Lehendabizi Plazuelako eraikina etorri zaigu burura; bertako usaina, bertako intxaurrendoa eta jolastokian biltzen genituen intxaurreak. Eraikin hura gogoratzean inork ez du bere bizilaguna ahaztu, Guillermo eta bere baratzea; bisitan joaten ginen aldiro oparixto batekin ateratzen ginen bertatik. Eta nola ahaztu Fausti eta Ixiarren besarkadak, hainbeste negarraldi lasaitzen zituztenak. Eta nola ahaztu pegatinaz eta plastikoz egindako mozorroak.

San Inaziora pasatzean, beste oroitzapen mordo bat, horiek inozentzia eta maltzurkeria puntu batekin lotuak. Bi gauetako irteerak izan dira gehien aipatu ditugun oroitzapenak: Beireko negarrak, Lapurriketan txerri eta oiloen kakak garbitzen izandako gorabeherak, Lizarran muztioa egiteko teknika garbiak. Baita ere ikastolan egindako dantza eta antzerkiak, gure ustez, Hollywoodeko artistak baino hobeto prestatuak. Hauek oroitzean nola ahaztu Xabi maisuak egin zigun antzerkia, denentzat pertsonalizatua. Ai gure Xabi! Zenbat maite genuen gure Xabi! Bere onetik ateratzen genuen hainbat momentutan, baina ziur gaude berak ere pixka bat maite gintuela.

Irakasleak aipatzean, Maite ere etorri da gure mezuetara, askorentzat irakasle maitagarriena. Zeinek esan behar zigun zortzi urterekin hainbeste ipuin kontatu zizkigun andereño goxo hark gure seme alabei ere kontatu behar zizkiela gaur egun. Eta nola ahaztu bertsotan jarri gituen Rosarekin; 90eko hamarkadako IKTko berrikuntzara pausoa eman zuena, eta bideoan gure saioak grabatu zituena. Gure sorpresa, urte batzuk geroago saio horiek ikastolako webean ikusi genituenean.

Milaka oroitzapen ekarri ditugu burura eta whatsapppeko taldea barrez bete dugu kuadrillak.

82an jaiotako B taldekoak



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g
tfnoa. 943 16 05 40
20240 ORDIZIA
www.jakintza.eus
ordizia@ikastola.net

